

**Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
2009. urtean euskararen alorrean diharduten eragileen sustatzeko  
hartu erabakiak**

**2009. urteko lankidetzarako fondoa**  
(Eragile jakinen Hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia)

**Baiona - 2009/06/10**

## **I. Lankidetzaren esparrua**

Hizkuntza gaietan, instituzio publikoen arteko mugaz gaindiko lankidetzaren lau urtez eraman ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak, bi erakundeen arteko lankidetzaren estuago bat finkatzen duen hitzarmena izenpetu zuten 2007. urteko otsailaren 7an. Hitzarmen honen helburuetatik bat da bi partaideek eraturiko lankidetzaren fondoren sortzea, Ipar Euskal Herriko eragileen hizkuntza jardueren proiektuen sustengatzeko.


2009. urteari dagokionez, lankidetzarako fondoa eratu da, alde bien ekarpenez. Guztira, **1.390.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarri da, era honetan :

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak : **470.000 €**,
- Euskararen Erakunde Publikoak : **920.000 €**.

2007 eta 2008. urteetako lankidetzarako fondoa urtean behin antolatutako Proiektu Deialdiak osatzen bazuen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak,

2009. urtean, hizkuntzaren eremuan kokatzen diren proiektuen sustapenaren indartzea erabaki dute, bi partaideek hornitu lankidetzan fondo hori bi multzotan banatuz :

- Lehen multzoa : bi partaideen arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko elkarte-eragile jakin batzuk, 2009. urterako balio izanen duen hitzarmen baten berme diruztatzen dira. Orohar, elkarte-eragile jakinen diruztatzeko, **970.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarri da.
- Bigarren multzoa : Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribatuei zuzenduko den hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia ireki da. Orohar, beste eragile pribatuen diruztatzeko, **420.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarri da.



Bestalde, hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztarturik den argitalpenari lotu **araudi berezitu bat** indarrean jarri da, euskarazko argitalpenaren sustatzeko modua arautuz gisa horretan.

Argitalpena atala honako hauen oinarriz egituratzen da :

- Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu,
- Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu,
- Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu.

2009. urteko maiatzaren 27rako, hots txostenen aurkezteko eperako, **68 eragile** dira aurkeztu direnak (62 eragile 2008an) :

- 8 eragile hitzarmenez lotutakoak,
- 60 eragile hizkuntza jarduera Proiektu Deialdian.

Eskaera ezberdin horietarik, **86 proiektu** dira jaliak izan direnak, Hizkuntza Politika Proiektuaren erronken eta lan eremuen arabera sailkatuak :

- Hitzarmenez lotutako eragile nagusiak, beren jarduera linguistiko osoaren sustatzeko xedez funtzionamendurako laguntzen direla eta :
  - Euskara transmititu :
    - . Irakaskuntza : 4 proiektu
  - Euskaraz bizi :
    - . Hedabideak : proiektu 1
    - . Aisialdiak : 2 proiektu
  - Euskara bizkortu :
    - . Helduen euskalduntzea : proiektu 1
- Hizkuntza jarduera proiektu Deialdian aurkeztu unean uneko proiektuak :
  - Euskara transmititu :
    - . Lehen haurtzaroa : 2 proiektu
  - Euskaraz bizi :
    - . Hedabideak : 12 proiektu
    - . Aisialdiak : 15 proiektu
    - . Argitalpena : 13 proiektu
    - . Euskararen tokia bizi sozialesan : 32 proiektu
  - Euskara bizkortu:
    - . Helduen euskalduntzea : 2 proiektu
    - . Ikerkuntza : 2 proiektu

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuek, eragile pribatuek (dela elkarte, dela enpresa) helarazi eskaera guziak banan-banan aztertu dituzte, aitzinetik finkatuak izan ziren eta eragileei azalduak izan zitzaizkien **lau irizpide nagusien** arabera :

- Eskatzailearen garrantzi estrategikoa Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileen artean eta esperientzia,
- Aurkeztutako proiektuak duen Euskararen Erakunde Publikoaren Hizkuntza Politika Proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzak onetsi Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu eta lan-lerroekiko lotura,

- Proiektuak izan dezakeen eragina, finkatu helburuei begira,
- Proiektuaren edukiaren eta aurkeztutako finantza planaren arteko egokitzapena eta auto-finantzazioa.

## **II. Diru-laguntzen esleipena**

Elementu horiek oinarritzat hartuz, eta azterketak eginez eta eztabaidatuz geroz, Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ondoko erabakiak hartu dituzte :

### **II.1. Hitzarmenez lotutako eragile nagusien jarduera linguistiko osoaren sustapena (970.000 €)**

- **290.000 €** jarriko dira **euskarazko irakaskuntzan** lanean diharduten eragileen sustatzeko, hauetan :
  - Seaska, murgiltzearen bidez burutu irakaskuntza jarduteko 24 ikastetxeetan (225.000 €),
  - Irakaskuntza elebiduneko 3 buraso elkarteak, publikoko biak (Ikas Bi, Biga Bai) eta irakaskuntza giristinoko Euskal Haziak, bakoitzaren sareetan euskarazko irakaskuntza sustatzen dutela jakina :
    - Ikas Bi (26.000 €),
    - Biga Bai (10.000 €),
    - Euskal Haziak (29.000 €),
- **255.000 €** jarriko dira Euskal Irratien sarearen sustatzeko,
- **170.000 €** dira jarriko direnak, aisialdi alorrean diharduten 2 eragileren sustatzeko : Bertsularien Lagunak (40.000 €) eta Uda Leku (130.000 €),
- **255.000 €** azkenik, Aek-k burutu helduen irakaskuntza jarduera programaren diruztatzeko.

### **II.2. Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia (420.000 €)**

#### **II.2.1. Lehen haurtzaroa**

- Aurkeztu 2 proiektuak lagunduko dira **lehen haurtzaroaren** alorrean (**2.600 €**) :
  - Biarritzeko Ohakoa haurtzaindegia : psikomotrizitate proiektu batentzat,
  - Ziburuko Luma haurtzaindegia : langile baten formakuntza proiektu batentzat.

### II.2.2. Hedabideak

- Jendartean euskararen zabaltzeko den bektorearen garrantziaz jabetuta, 9 proiektu sustatuko dira **hedabideen** alorrean, **222.000 €**ko dirutza batentzat :
- TVPI eta Aldudarrak Bideo, euskarazko telebista emankizunen ekoizteko, zeinetan berrikuntza gisa aurkituko den Aldudarrak Bideoen 2 orduko ekoizpen bat TVPI katean numerikoz astero pasako dena,
  - RadioKultura eta Aztibegia : internet bidezko irratiak (elebiduna eta hirueleduna),
  - Herria eta Mintza : prentsa idatzia (astekariak),
  - Behe Bidasoako Hitza : Hendaian, Urruñan et Biriatuan ere hedatuko den proiektuaren abiatzearen laguntzea,
  - Kazeta.info : internetez zabalduko den egunkari proiektuaren abiatzearen laguntzea.

### II.2.3. Aisialdiak

- **Aisialdien arloan**, 2008ko Proiektu Deialdiak euskarazko aisialdi eskaintza baten hazkuntza nabarmendu zuen. Sustapen lan hori jarraitua izanen da 2009an, eragilea bere lan tresnen eta euskarrien euskarara egokitzen lagunduz, langileria euskarara abiarazten edo hobetzen lagunduz, eta euskararen erabilera tokian toki sustatuz.
- 2009an, kasu horretan dira:
- Ondareari buruzko heziketa eta animazioak (Hendaiako Abbadiako Adixkideak),
  - Instrumentu eta solfeo kurtsoak (Iparralai Donibane Garazin eta ZTK Ipar Euskal Herriko barnekaldean),
  - Antzerki tailerrak (Maite dugulako Biarritzen, Azkaingo ikastola, Karkaila Xiberoan eta Garazikus Donibane Garazin),
  - Bela kurtsoak eta ikastaldiak (Ziburuko Lema),
  - Dantza kurtsoak (IDB Iparraldean gaindi eta Elirale Donibane Lohizunen),
  - Udako animazioak (Basaizea Baigorri),
  - Zirko sormen tailerrak (Baionako Oreka),
  - Sorkuntza artistiko tailerrak (Itzal Aktiboa Donibane Garazin),
  - Zientziekin ezagutza egiteko tailerrak (Biarritzen ere kokatuak diren Les Petits Débrouillards).

14 eragile horiek euskarazko aisialdi jarduera erregularrak antolatzen dituzte euskaraz, eta garapen azkar baten bidean den Uda Lekuk antolatu Bilgune eta egonaldi eskaintzaren osagarri bezala datoz.

Aisialdien alorrean, **75.943 €**-ko dirutza orokor bat mobilizatu da.

#### II.2.4. Argitalpena

→ **Argitalpenaren arloari** dagokionez, lehen aldiz, 3 sustapen-lerro zehazten dituen araudi berezitu bat plantan emana izan da :

- 9 argitaratze (3 Gatuzain-ek, 4 Elkar-ek, Hatsa-k eta Astobelarra-k bedera),
- 3 merkaturatze proiektu (Astobelarra, Gatuzain, Elkar),
- 2 animazio pedagogiko proiektu (Libreplume, Elkar).

Orotara, **22.457 €** dira jarritakoak argitalpenaren arloan.

#### II.2.5. Bizi soziala

→ Iragan urtearekin alde nabarmena duena, euskararen presentzia **bizi soziala** izendaturiko sailak eskaera berriak erakarri ditu, euskarazko zerbitzuen eskaintzea ofiziotzat ez duten eragileengandik : beren barneko zein kanpoko komunikazioan euskararen presentzia bermatu nahi dute.

2009an lagunduak izanen dira:

- 2 gertakari handiren kariatara, euskararen presentzia garatzeko proiektuak (EHZ eta Lurrama),
- 6 eragile kulturelek aurkeztu proiektuak, komunikazio lanetan euskararen presentziaren bermatzeko xedez (Euskaldun Gazteria, Euskaltzaleen Biltzarra, Traboules, Atelier, Bordaxuri eta Chimères antzerki taldea),
- 2 eragile sozio-ekonomiko : Euskal Xerria eta Ossau-Iraty sormarkako gasnaren defentsarako sindikatuak aurkeztu proiektuen sustatzeko, euskararen presentzia beren komunikazioan indartzeko.

- 2 proiektu ingurumenarekin zerikusia dutenak : hemen ere euskararen presentzia garatu nahi da (Surfrider Foundation Europe eta le Jardin Botanique Littoral Paul Jovet,
- UEU-k burutu 3 proiektu, formakuntzaren arloan,
- Mintzaldi ziklo baten proiektua, Lapurdi 1609 elkartearen eskutik,
- Eta azkenez, ARIHPB-ek, Itsas Kirolak-ek eta Anne-Marie GALE-k aurkeztutako 3 dokumental ekoizpen proiektuen sustatzeko.

Orotara, 19 proiektu horien gauzatzeko, **81.500 €** jarriko dira euskararen presentzia bizi sozialean bermatzen laguntzeko.

#### II.2.6. Helduen euskalduntzea

- Aek laguntzeaz bestalde, **8.500 €** jarriko dira **helduen euskalduntzearen** alorrean, Biarritzeko Maite Dugulako elkarte eta Angeluko Ikasleak elkarteak sustatuz, Gau eskolen federazioak burutu jardueren osagarri.

#### II.2.7. Ikerkuntza

- Bukatzeko, 2 proiektu diruztatuko dira **ikerkuntza** sailean (**7.000 €**) :
- Eneko VIDEGAIN (3.500 €) : Eskualduna astekariak gerla handia nola aipatu zuen aztertzeke,
  - Isabelle DUGUINE (3.500 €) : Hizkuntzen ikasteko moldeak eta elebitasun goiztiarra aztertzeke (Iparraldeko haurrak).

Orohar eta laburpen gisa, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak, iragan urteko haritik, euskara transmititzeko, ikasteko, praktikatzeko eta hedatzeko **molde efikazean lan egiten duten jadanik profesionalizatu eragileak lehenetsi dituzte.**

Nahikari hori batez ere datuek azaltzen dute : 2009. urtean diruztatutak diren **68 eragileetarik 8k**, lankidetzaren fondoaren %70a mobilizatzen dutela ohartzen baldin bagira.